



2022/05/26KO UDALBATZAREN OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Eguna: 2022/05/26
Hasiera ordua: 19:00
Amaiera ordua: 19:35

Bertaratuak:

Lehendakaria:

Lierni Altuna Ugarte –alkatea- (EH BILDU)

Zinegotziak:

EH BILDU UDAL TALDEA:

Gorka Astondoa Altuna
Santiago Balantzategi Beitia
Iban Herrarte Arana
Oihana Ameskua Perez
Maria Cristina Etxenautia Irure

EAJ/PNV UDAL TALDEA:

Juan Antonio Peña Orobengoa
Pedro Elosegui González de Gamarra

Ez bertaratuak:

Ana Maria Martiarena Arregi

Idazkaria:

Bittor Agirreurreta Murgia

Aramaion (Ibarran), Udaletxeko bilkura aretoan, goian aipatutako egun eta ordua denean, lehenengo deialdian goian aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira Udal Plenoaren ohiko bilkura burutzeko objektuaz, Lierni Altuna Ugarte Alkate-Lehendakaria Lehendakari dela. Bilkura honetara Udalaren idazkari-kontuhartzaila, Bittor Agirreurreta Murgia, bertaratu da.

Lehendakariak, quoruma dagoela egiaztatuta, hasiera eman dio bilkurari eta aztergaien zerrendan jasotako gaiak jorratzeari ekin dio Udalbatzak:



AURKIBIDEA

1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURETAKO AKTAK.	3
2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.	3
3. ITELAZPIREKIN HITZARMEN LUZATZEA, TELEKOMUNIKAZIOETAKO ZENTRO PUBLIKOA OKUPATZEKO.	3
4. GORBEIALDEKO KUADRILLAREKIN HITZARMENA SINATZEA, ZERBITZUEN KUDEAKETA GOMENDIORAKO. .	3
5. A.F.A.REKIN HITZARMENA SINATZEA ERAKUNDE HORREK EMANDAKO KUDEAKETA APLIKAZIOEN SISTEMA INFORMATIKOEN ERABILPENERAKO.	7
6. 2019KO LEP BALIOGABETZEA..	10
7. KIROLDEGIA BERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRAREN EXEKUZIOA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.	11
8. KIROLDEGIA BERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRAREN EXEKUZIOA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA.	12
9. AURREKO EKITALDIETAKO FAKTUREN ERAGOZPENAK.	13
10. TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO AKORDIOAREN ALDEKO ATXIKIMENDUA.	17
11. GALDERAK ETA ESKAERAK.	17



1. ONARTZEA, BADAGOKIO, AURREKO BILKURAKO AKTA.

Alkate-Lehendakariak 2022ko urtarrilaren 27eko ohiko bilkurako, 2022ko martxoaren 2ko ezohiko bilkurako, eta 2022ko apirilaren 12ko ezohiko bilkurako aktaren gainean inork oharrik ote duen galdetu du.

Inork akta horiei buruz oharpenik ez duenez, lehendakariak aktak onartzeko bozketa deitu du eta aho batez onartu da, 2568/1986 Errege Dekretuaren, azaroaren 28koaren, Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenaren 91. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udalbatza, besterik gabe, azken ohiko bilkuratik egin diren dekretuen jakitun gelditu da (26/22tik 168/22ra).

3. ITELAZPIREKIN HITZARMEN LUZATZEA, TELEKOMUNIKAZIOETAKO ZENTRO PUBLIKOA OKUPATZEKO.

Alkateak gogorarazten du, 2018ko azaroaren 29an egindako Osoko Bilkuran onetsi zela Itelazpi S.A. sozietate publikoarekin hitzarmena sinatzea, Kurtzetako telekomunikazio zentroaren kudeaketarako. Zentro horrek balio du, besteen artean, Aramaion telebista seinalea egokiro hartzeko. Zentroa lurzoru publikoan dago kokatua eta, esandako hitzarmen horren bidez, lurzoruaren okupazioa arautzen da. Hitzarmenak lau urteko iraupena du eta beste 4 urterako luzagarria da.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea, Itelazpi S.A. sozietate publikoarekin sinatutako hitzarmena luzatzea, Kurtzetako telekomunikazioetako zentro publikoa okupatzeko.

Bigarrena.- Honakoaren berri jakinaraztea sozietate publikoari.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.

4. GORBEIALDEKO KUADRILLAREKIN HITZARMENA SINATZEA, ZERBITZUEN KUDEAKETA GOMENDIORAKO.

Indarrean dagoen araudiak hainbat eskumen aitortzen dizkie udalei. Kasu batzuetan, eskumen horiek egikaritzeko beharrezkoak diren jarduerak dituzten edukin material, tekniko edo zerbitzuzkoa, ezinezkoa egiten dute udalek aurrera eramatea. Hala ere, Kuadrillaren bitartez posible da eskumen horiek egikaritzea, modu koordinatu eta eraginkorrean. Horretarako, Gorbeialdeko Kuadrillarekin hitzarmena sinatu beharra dago, zerbitzuen kudeaketa gomendioa aurrera eramateko.

Hitzarmenak horrela dio, hitzez hitz:

“GORBEIALDEKO KUADRILLAREN ETA _____ KO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ZERBITZUEN KUDEAKETA-AGINDUARI BURUZKOA

Zuian, 2022ko _____aren ____an.

BATZARTURIK

Batetik, Agustin Otsa Eribeko Landa jauna, Gorbeialdeko Kuadrillako presidente gisa, eta hitzarmen hau sinatzeko gaitua honako akordioaren bidez: _____, _____ datan.

Bestetik, _____ jauna/andrea, _____ko Alkate gisa, eta hitzarmen hau sinatzeko gaitua Osoko Bilkuraren honako akordio bidez: _____, honako datan: _____.

Eta, nire aurrean, _____ jauna/andrea, _____ Udaleko Idazkari gisa, ekitaldi honetan parte hartzen duena, _____ jardueraren kudeaketa-aginduaren hitzarmenaren fede emateko.

Aldeek elkarri aitortzen diote legezko gaitasun nahikoa eta beharrezkoa dutela ekitaldi hau egiteko, eta, beraz,



AZALTZEN DUTE

1. Aipatutako udala da Gorbeialdeko Kuadrillari esleituko zaizkion eta I. eranskinean zehaztuta dauden eskumenen titularra, I. eranskinean garatutako araudian ezartzen denarekin bat eginez.
2. Hitzarmena sinatzen duen udalak Gorbeialdeko Kuadrillari agindu diezaiokie bere eskumeneko jarduera material edo teknikoak egiteko, 40/2015 Legean, urriaren 1ekoan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenean, ezarritakoaren arabera.

Gorbeialdeko Kuadrillak eskumena du udal sinatzaileek agindutako jarduera material edo teknikoak egiteko, Azaroaren 20ko 63/1989 Foru Arauak, Kuadrillei buruzkoak, bere 1.

Artikulan ezarritakoaren arabera. Bertan, Arabako Kuadrillak udalerriek osatzen dituzten foru-erakunde gisa eratzten ditu, interes orokorreko gaietan parte hartzeko eta beren lurralde-eremuari eragiten dioten gaiak sustatu eta kudeatzeko.

63/1989 Foru Arauaren 28. Artikuluak ezartzen duenaren arabera: "kuadrillei dagokie, parte hartzeko eta kontsultak egiteko eta eskualdeko interesak sustatzeko eta kudeatzeko erakunde gisa: e) Kuadrillako interes orokorreko zerbitzuak sustatzea eta kudeatzea."

3. Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Espainiako ordenamendu juridikora Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duenak (hemendik aurrera, SPKL), bere 31.1. artikuluan honakoa ezartzen du: "Sektore publikoko erakundeek lankidetzan jardun ahal izango dute, honako modu hauetakoren batean, eta lankidetzan horren emaitza ezin izango da kontratatutako jo: b) sektore publikokoak diren erakundeen arteko lankidetzaren sistema horizontalen bidez, aldeztu aurretik dagozkien hitzarmenak sinatuta, 6. Artikuluko 1. Atalean ezarritako baldintza eta mugekin."

4. Lankidetzaren hori legekoa da administrazio arteko kolaborazio, kooperazio eta laguntza printzipioen arabera, ondorengoetan jasotakoa betez: 140. Artikulua eta hurrengoak, urriaren 1eko 40/2015 Legekoak, Sektore Publikoko Erregimen Juridikoari buruzkoak.

Hitzarmen hau aurrez aipatutako 40/2015 Legearen 11. Artikulan aurreikusitakoaren babespean formalizatu da, eta I. eranskinean ezarritako zerbitzuak emateko funtzioaren kudeaketa-agindua ezartzen du. Aipatutako artikulua hiru gaitan atalean zehazten da agindua nola formalizatu behar den: "b) Kudeaketa-gomendioa hainbat administrazioetako zuzenbide publikoko organoen eta erakundeen artean egiten denean, haien arteko hitzarmena sinatuz formalizatuko da, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean, autonomia-erkidegoko aldizkari

ofizialean edo probintziakoan argitaratu beharko da, gomendioa egiten duen organoa zein administrazioetako den, salbu eta probintziako diputazioek autonomia-erkidegoko zerbitzuen ohiko kudeaketa egiten dutenean edo, hala badagokio, uharteetako kabilde edo kontseiluek kudeatzen dituztenean."

Gomendioa hitzarmen baten bidez formalizatu behar bada ere, gomendioak ez du bete behar hitzarmenei buruz 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoak ezarritakoa. 40/2015 Legearen 48.9 artikuluan hala ezartzen da: "kapitulu honetako arauak ez zaizkie aplikatuko administrazio-prozeduren kudeaketa-gomendioei eta amaiera itunduko akordioei."

5. Izaera material edo teknikoak duten edo zerbitzu-izaera duten jarduerak, aipatutako eskumenak dakartzanak, ezin dituztela Udalek egin, ondorengo arrazoiak direla eta:
 - a. Esleitzen zaizkion eskumenen exekuzioa oso zaila da Arabako Lurralde Historikoko udalerri gehienetan. Daukaten tamaina txikia eta herritar kopuru urriarengatik, ez daukate zerbitzua behar bezala emateko nahitaezkoak diren azpiegiturarik.
 - b. Udalek dituzten baliabide ekonomiko orriak optimizatzeko beharra dagoela adierazten da.
 - c. Beharrezkoa da hitzarmen honek helburutzat dituen zerbitzuak Gorbeialdeko Kuadrillako kide diren udalerri ezberdinetan modu koordinatuan eskaintzea, herritarrei zerbitzu osoago eta eraginkorrago bat emateko.
6. Hitzarmen honen bidez, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetu nahi da, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztu, onura publikoko jarduerak egiten lagundu eta aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko legeria bete. Azken batean, hitzarmen honen helburua da

Gorbeialdeko herritarrek zerbitzu publiko guztiak intentsitate eta kalitate berean jasotzea, baliabide ekonomikoak modu eraginkor eta egokian gauzatzeko eta kudeatzeko.

7. Udalak Gorbeialdeko Kuadrillari esleitutako zerbitzuen hitzarmen bakarra garatu da, gomendioan emandako zerbitzuak eta legeko prozedurak koordinatzeko tresna eraginkorra izan dadin.

KLAUSULAK

1. APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA, ETA LURRALDEAREN APLIKAZIO-EREMUA

Hitzarmen hau, sinatzen duten toki-erakundeek bete beharko dute, eta Gorbeialdeko Kuadrilla izango da hitzarmen honen aplikazio-eremua.

2. HELBURUA

1. Hitzarmen honen xedea honako hau da: Gorbeialdeko Kuadrillak I. eranskinean ezarritako gaietan laguntza tekniko edo materiala emateko Udalak egindako gomendioa gauzatzeko baldintzak jasotzea, I. eranskinean ezarritako eginkizunak garatzeko.



2. Mandatuak ez dakar udalari arlo horretan dagozkion eskumenen titulartasuna aldatzea.

3. GORBEIALDEKO KUADRILLAREN BETEBEHARRAK

Hitzarmen honen helburua gauzatzeko, Gorbeialdeko Kuadrillak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

1. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak finantzatzen laguntzeko behar diren diru-laguntza eskaerak izapidetzea kasuan kasuko administrazio edo erakunde publikoei.
2. Hitzarmen honen xedea betetzeko behar diren kontratazioak egitea.
3. Hitzarmena sinatu duen udalari jakinaraztea, adostasuna emate aldera, hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko konfigurazioan egin nahi den edozein aldaketa, baita zerbitzua ematen duten pertsonak egin ditzaketan uko egiteak edo garrantzizko beste inguruabar batzuk ere.
4. Zerbitzu bakoitzaren diru-sarreraren eta gasteen aurreikuspen bat egitea hurrengo ekitaldirako, aurreko ekitaldiaren hirugarren hiru hilekoan, eta udal sinatzaileari bidaltzea, dagozkion ordainketa aurreratutako egiteko behar duen kreditua sar dezan bere aurrekontuan.
5. Urte bakoitzeko otsailaren 28a baino lehen, hitzarmenaren xede diren zerbitzua ematen duen pertsonak udaletan eta Kuadrillan gauzatzeko jarduerak justifikatzen dituen memoria aurkeztea, bai eta diru-sarreraren zerrenda ere, zenbatekoa eta jatorria adierazita, eta izandako gastuak ere adierazita.
6. Benetako kostua justifikatu ondoren, Gorbeialdeko Kuadrillak ematen dituen zerbitzuengatik, udal sinatzaileek gehiegizko finantzaketa izango balute, Gorbeialdeko Kuadrillak soberakin hori itzuli beharko luke. Aitzitik, finantzaketan akatsen bat badago, Kuadrillak egoera horren berri emango dio Udalari, eta, Udalak, gertatutako akatsa estaltzeko beharrezkoak diren ekarpenak egin beharko ditu, dagokion proportzioan.

4. AGINDUA EMATEN DUTEN UDALAREN BETEBEHARRAK

Hitzarmen honen helburua gauzatzeko, Udalak ondorengo konpromisoak hartzen ditu:

1. Unean unean indarrean dagoen aurrekontu-arloko legerian xedatutakoa betetzen bada, konpromisoa hartzea Gorbeialdeko Kuadrillak ematen dituen eta hitzarmen honen xede diren zerbitzuen defizitarekin laguntzeko. Horretarako, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren hasieran Gorbeialdeko Kuadrillak emandako zerbitzuaren kostu-aurreikuspenei aurre egiteko behar den aurrekontu-kreditua sartuko da urteko udal-aurrekontuan.
2. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuen kontratazioa arautuko duten baldintza-agiriei adostasuna ematea eta egoki irizitako ekarpenak edo alegazioak egitea, horien lizitazio-prozedura izapidetu aurretik.
3. Gorbeialdeko Kuadrillari laguntza teknikoko zerbitzua ematearen kostua ordaintzea, zerbitzu bakoitza finantzatzen duten erakundeek (Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia...) diruz lagundu gabeko zenbatekoan, eta hitzarmen honetan jasotako arloetan laguntza teknikoko zerbitzua aurrez aurre emateko urteko ordu kopuruaren proportzioan.
4. Hitzarmenaren xede diren zerbitzuak eman ahal izateko finantzaketa gisa, bi ordainketa aurreratu egitea (ekitaldi ekonomiko bakoitzaren azken hiru hilekoan Gorbeialdeko Kuadrillak egindako diru-sarreraren eta kostuen aurreikuspenen arabera). Ordainketa horiek funtsak ematea ekarriko dute, hitzarmen honek jasotzen dituen arloetako laguntza teknikoko zerbitzuen benetako kostuak justifikatu aurretik. Ordainketa horiek honela egingo dira: %50 otsailean eta gainerako %50a irailean, Udalak, egin beharreko ordainketa atzeratzeko behar arrazoitua jakinarazten duenean saldu.
5. Gorbeialdeko Kuadrillak ekitaldi ekonomiko bakoitzaren amaieran egiten duen laguntza-zerbitzuengatik kostu erreala justifikatu ondoren, zerbitzuen finantzaketan defizita badago, Udalak bere gain hartuko du egotz dakioken aldea jartzeko betebeharra.
6. Langileak udaletxera joaten direnean eta agindutako eginkizunak betetzen dituztenean bertan fisikoki kokatzeko beharrezko ekipamendu eta materialez hornitzea instalazioak.
7. Zerbitzuaren gauzatzeko materialarekin lotutako gastuak (materialak, zerbitzuen kontratazioa, ikastaroak...) Udalaren kontura izango dira, zerbitzuan sartzen diren langileen ekipamendu propioa izan ezik.
8. Zerbitzu bera Kuadrillari agindu dioten beste Udalekin beharrezko koordinazio-lanak egitea, herritarrei zerbitzu eraginkorrago eta osoago bat emateko helburuarekin.
9. Kuadrillari, zerbitzu bererako, kudeaketa-agindua egin dioten beste Udalekin, eta Gorbeialdeko Kuadrillarekin berarekin, beharrezko koordinazio-lanak egitea, herritarrentzako zerbitzu eraginkorrago bat emateko helburuarekin.

5. IRAUPENA

Kudeaketa-gomendioa denbora-mugarik gabe hitzartzen da, interes orokorreko arrazoiengatik ezeztatzeko aukera alde batera utzi gabe edo, sei hilabete lehenago, aurrez abisatuta, alderdietako batek salaketa aurkezteagatik, dokumentu honetan onartutako betebeharrak ez betetzeagatik.

6. JARRAIPEN BATZORDEA

1. Batzorde bat eratzen da, hitzarmenaren exekuzioaren eta jarraipenaren kontrola eramango duena. Honakoek osatuko dute: Gorbeialdeko Kuadrillako ordezkari batek, hain zuzen ere, Kuadrillako Presidenteak edo hark eskuordetutako pertsonak, eta Udalaren ordezkari batek, hain zuzen ere, alkateak edo hark eskuordetutako pertsonak.



Gauzak horrela, Jarraipen Batzordea ondorengo ordezkariak osatuko dute:

TOKIKO ERAKUNDEA

ORDEZKARIA

Gorbeialdeko Kuadrilla

Kuadrillako presidentea

_____ko Udala

_____ Udaleko Alkatea

2. Organo honen funtzioak honakoak izango dira:

- Hitzarmen honetan jasotako arloetan laguntza teknikoko zerbitzuak ematean sor daitezkeen eztabaidak ebaztea.
 - Hitzarmen honen interpretazioan sor daitezkeen zalantzak argitzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen printzipioak aplikatuz, hitzarmenaren indarraldian sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.
 - Hitzarmenaren ez-betetzeak identifikatzea eta ez-betetzea egin duen alderdiari eskatzea hilabeteko epean bete ditzala bete gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.
3. Batzordea bilduko da beharrezkoa den guztietan, aldeetako edozeinek eskatuta, Hitzarmen honetan lortu nahi den helburuarekin lotutako jardueren koordinazioa eztabaidatu eta adosteko.

7. ALDATZEA

Hitzarmenak formalizatutako agindu hau aldean adostasunarekin aldatu ahal izango da, aldeetako edozeinek hala eskatu ondoren.

8. AZKENTZEA

1. Agindu hau azkendu egingo da bere helburua betetzen bada, edo berau suntsiarazteko arrazoiren bat badago. Ebazteko arrazoiak honakoak izango dira:
- a) Sinatzaileek hala adostea.
 - b) Hitzarmen honen helburu diren jarduerak egitea ezinezkoa edo ez beharrezkoa egiten duten baldintzak egotea.
 - c) Sinatzaileetako batek, dagozkion betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
 - d) Hitzarmena balio gabea dela adierazten duen erabaki judiziala.
 - e) Araudi juridikoan aurreikusitako beste edozein arrazoi.
2. Udalak zerbitzu bat kudeatzeko gomendioa amaitzea erabakitzen badu, eta zerbitzu hori eman duten gainerako udalek, edo Gorbeialdeko Kuadrillak berak, zerbitzua osatzen duten langileek udal horretan ematen dituzten orduak bere gain hartzen ez badituzte, kudeaketa-agindua bukatzean duen Udalak zerbitzua ematen duten langileen egoera aldatzearen ondoriozko kostu ekonomikoei aurre egin beharko die (kontratuaren aldaketa, kaleratzea, kalte-ordaina, subrogazioa...).

9. EZ BETETZEEN ARAUBIDEA

Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak betetzen ez baditu, Jarraipen Batzordeak errekerimendua egin ahal izango dio bete ez duen aldeari, hilabeteko epean bete ditzan bete gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, Jarraipen Batzordeak hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak jakinaraziko dio ez-betetzea egin duen alderdiari, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da. Hitzarmena arrazoi horrengatik suntsiarazten bada, zerbitzuen eta haiei atxikitako langileen berregituraketak eragindako kalteak ordaindu beharko dira, zortzigarren klausulako bigarren atalean ezarritako baldintzetan.

10. HITZARMENAREN ARAUDIA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

Hitzarmen honek Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan aurreikusitako izaera du, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legetik kanpo dago. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikoraa. Bertako 6.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, bere arau berezien bidez arautzen da, eta adierazitako Legearen printzipioen arabera ebaztuko dira sortu daitezkeen zalantzak eta hutsuneak.

Hitzarmen honen interpretazioari, aldaketari, ebazpenari eta ondorioei buruz sortzen diren eztabaidak hitzarmen honetan aurreikusitako Jarraipen Batzordean konpondu beharko dira, elkarrekiko adostasun bidez. Horretarako, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen printzipioak aplikatu beharko dira, bertako 4. Artikuluan xedatutakoa betez, hitzarmenaren indarraldian sor daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko.

Era berean, auzigaiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

11. PUBLIZITATEA

Kudeaketa-gomendioaren hitzarmen hau Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3 b) artikuluan xedatutakoaren arabera argitaratuko da. Horrekin lotuta, alderdiek berariaz onartzen dute hitzarmen honi eskatzen zaion publizitatea ematea.



Eta ados daudela adierazteko, alde guztiek agindu hau sinatzen dute, ondorio bakarrerako, _____ (e) ko datan eta lekuan, eta dokumentu hau formalizatzeko data azken sinatzailearen data izango da.”

Hitzarmenari eranskin bat gehitzen zaio eta, bertan zehazten da, udalak Kuadrillari agindutako zerbitzuak zeintzuk diren eta nola egikarituko diren. Hain zuzen ere, ondorengoak dira: Berdintasuna, Kultura, Ingurumena, Euskara, Gizarte Zerbitzuak, Artxiboa eta Garapen ekonomikoa.

Alkateak adierazten du, Aramaioko Udalaren kasuan ez direla aipatutako zerbitzu guztiak hitzartuko, udalak bere Euskara Zerbitzua baitu eta aspalditik ematen du zerbitzu hori.

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea Gorbeialdeko Kuadrillaren eta Aramaioko Udalaren arteko hitzarmena sinatzea, zerbitzuen kudeaketa aginduari buruzkoa.

Bigarrena.- Agintzea Gorbeialdeko Kuadrillari, aipatutako hitzarmenarekin bat, ondorengo zerbitzuen izaera material edo teknikoko jarduerak egiteko: Berdintasuna, Kultura, Ingurumena, Gizarte Zerbitzuak, Artxiboa eta Garapen ekonomikoa.

Hirugarrena.- Alkatea eskuordetzea hitzarmena sinatzeko eta horri dagozkion eginbideak aurrera eramateko.

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzari, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”

5. A.F.A.REKIN HITZARMENA SINATZEA ERAKUNDE HORREK EMANDAKO KUDEAKETA APLIKAZIOEN SISTEMA INFORMATIKOEN ERABILPENERAKO.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 36.1g) artikuluan ematen dio Arabako Foru Aldundiari 20.000 biztanletik beherako udalerrietan administrazio elektronikoko zerbitzuak emateko eskumena. 2021eko azken sei hilekotik, lurraldeko udalekin eta kuadrillekin administrazio elektronikoa kudeatzeko eredu berri bat definitzeko lanean aritu da A.F.A. Lan hori 2022ko ekitaldian gauzatuko da, Arabako toki-erakundearen bigarren eraldaketa digitaleko prozesu baten hasieran.

Hartara, toki erakundeek erabaki beharrekoa da Arabako Foru Aldundiak emandako kudeaketa aplikazioen sistema informatikoaren barruan jarraitu nahi duten, edo ondorio guztietarako bakoitzak bere erakundea kudeatzea nahi duen. Horri buruzko erabakia hartzeko toki erakundeek duten autonomia errespetatu egingo du aldundiak, baina jakin beharra dago zer erakundeek duten prozeduran parte hartzeko interesa, aurreikusitako lizitazioa ekonomikoki eta teknikoki dimentsionatu ahal izateko. Horretarako, interesa izanez gero, toki-erakundearen akordio formala behar da, eta hitzarmen bidez gauzatu.

Alkateak gogorarazten du, Aramaioko Udalak espedienteen kudeaketa elektronikoa egiteko bere tresna baduela 2012az geroztik eta, gaur egun, A.F.A.k eskaintzen duena baino hobea dela.

Aurreko guztia gauzatzeko eta udalak erabiltzeko oinarriko baldintzak ezartzeko hitzarmenaren proposamena bidali du A.F.A.k. Hitzez hitz, horrela dio:

BILDUTA

Alde batetik, Irma Basterra Ugarriza, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Oreka diputatu andrea, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, 2022ko XXaren xx (e)ko Foru Gobernu Kontseiluaren xx/2022 Erabakiaren bidez.

Bestalde, XXX, xx (e)ko Udaleko alkate-udalburua, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, xxx (e)ko Udaleko Osoko Bilkuraren 2022ko XXXXaren xx (e)ko erabakiaren bidez.

Alderdi biek hitzarmen hau sinatzeko gaitasun nahikoa aitortzen diote elkarri, eta

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 36.1g) artikuluan ematen dio Arabako Foru Aldundiari 20.000 biztanletik beherako udalerrietan administrazio elektronikoko zerbitzuak emateko eskumena.

Gainera, 36.1.b) artikuluan udalei laguntza eta lankidetzaren emateko eskumena esleitzen zaie aldundiei, batez ere gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikiaren dutenei.



II. Hitzarmenak Administrazio Publikoek helburu komun baterako hartutako ondorio juridikoak dituzten hitzarmenak dira, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak emandako definizioaren arabera.

III. Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak hainbat betebeharrak ezartzen dizkie toki-erakundeetara herritarrekiko harremanetan, bai eta espedienteak izapidetzeko moduan ere.

IV. Foru Aldundiak udalen eta beste toki entitate ezberdinen eskura jartzen du udal kudeaketako sistema informatiko integrala eta administrazio elektronikoa dagokionez Arabako toki entitateei funtzionamendu osoz jarduteko beharrezkoak diren hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiete. Gainera, sistemak toki entitateen barne kudeaketa integrala ahalbidetzen duten beste modulu batzuk ditu.

Gaur egun, hurrengo moduluak osatzen dute:

A) Administrazio elektronikoko moduluak (legez derrigorrezkoak):

- Hirugarrenen moduluak eta lurraldea.
- Sarrera eta irteerako matrikula moduluak.
- Idazkaritza moduluak.
- Herritarren arretarako moduluak.
- Egoitza Elektronikoa Moduluak.
- Fitxategien kudeatzailea moduluak.

B) Barne kudeaketako moduluak (ez dira nahitaezkoak Arabako Foru Aldundiarentzat):

- Biztanleriaren erregistro-moduluak.
- Hauteskunde moduluak.
- Diru-sarrerak eta kobrantza kudeatzeko moduluak.
- Kontabilitate moduluak.
- Ondare moduluak.
- Nomina eta gizarte segurantzaren moduluak.

V. Arabako Foru Aldundiaren asmoa da udalerriei eta gainerako toki entitateei zerbitzu hau eskaintzen jarraitzea. Horrela, hitzarmen tipo hau onartu da, sistemaren erabilera- baldintzak epe luzerako formalizatu nahi dituzten erakundeek sinatzen dute,

ADOSTU DITUZTE

Honako klausulak:

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea (SPAJLren 49.c artikulua)

Hitzarmen honen xedea da oinarriko baldintzak ezartzea xx (e) ko Udalak udal kudeaketa integralerako sistema informatikoa eta Arabako Foru Aldundiak haren esku jartzen dituen beste toki-erakunde batzuk erabiltzeko.

Bigarrena. Alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak (SPAJLren 49.d artikulua) eta alderdietako bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak urratuz gero aplikagarriak diren ondorioak (SPAJLren 49.e artikulua).

A) Arabako Foru Aldundiaren betebeharrak:

XX (e)ko Udalarik aholkularitza eta laguntza tekniko eta operatiboa ematea, udal-administrazio elektronikoa ezartzeko eta eguneratuta mantentzeko.

Arabako Foru Aldundiak administrazio elektronikoko moduluak emango dizkio XXX (e)ko Udalarik. Horrez gain, barne-kudeaketako moduluak erabiltzeko aukera emango du, betiere aurrekoak erabiltzen badira.

Foru-Aldundiak administrazio elektronikoen arloan dauden betebeharrak betetzeko behar diren baliabideak eman beharko dizkio uneoro XXX (r)i.

Ildo horretan, Foru-Aldundiak sistemaren moduluak aldatu ahal izango ditu, betiere horien funtzionaltasuna lehendik daudenen antzekoa edo handiagoa bada. Kasu horretan, Arabako Foru Aldundiak sistemaren datuen migrazioa bermatu beharko du.

Arabako Foru Aldundia arduratuko da sistemaren arkitektura aukeratzeko. Sistemak berak dituen datuen segurtasuna eta osotasuna bermatu beharko ditu.

Horrez gain, Foru-Aldundiak erabiltzaileentzako arreta-zentro bat eta beharrezko prestakuntza emango die toki-erakundeko langileei.

Arabako Foru Aldundiak zuzenean eman ahal izango ditu zerbitzu horiek guztiak, edo administrazio-kontratazio publikoaren arloan jasotako mekanismoen bidez.

B) xxx (e)ko Udalaren betebeharrak:



Xxxx (e)ko Udalari dagokio udaleko eta beste toki-erakunde batzuetako kudeaketa integraleko sistema informatikoaren moduluen funtzionamendurako beharrezkoa den mikroinformatika eta oinarrizko softwarea (sistema eragilea, ofimatika, birus-kontrakoak, sinadura elektronikoa...) hornitzea.

Erakundea datuen jabea izango da, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikotik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu.

Hirugarrena.- Hitzarmenean ezarritako kudeaketa-gomendioaren betearazpenaren jarraipena, zaintza eta kontrola egiteko mekanismoak (SPAJLren 40.f artikulua).

Alderdien arteko lankidetzeta eta harreman estua lortzeko, eta, horrela, hitzarmen hau gauzatzeko beharrezkoak diren jarduerak koordinatzeko, jarraipen-batzorde bat eratuko da, honako kide hauekin:

- Arabako Foru Aldundiko bi ordezkari.
- Hitzarmen hau sinatu duten toki-erakundeen bi ordezkari.

Jarraipen-batzorde hori alderdietako edozeinek eskatuta bilduko da, hitzarmena behar bezala betetzean sor daitezkeen eztabaidak eztabaidatzeko.

Alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmen hau edo horretatik eratorritako berariazko akordioak interpretatu eta gauzatzetik sortzen diren desadostasunak adostasunez konpontzeko.

Laugarrena.- Aldaketa- araubidea (SPAJLren 49.g artikulua)

Hitzarmen honen edukia aldatzeko, sinatzaileek aho batez adostu beharko dute.

Aldaketarik eginez gero, nahikoa izango da egungo klausulen eranskin bat onartzea.

Bosgarrena.- Indarraldia (SPAJLren 49.h artikulua).

Hitzarmen hau sinatzen den egunetik 2024ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean. Epe hori amaitu baino lehen, luzatu ahal izango da, behin bakarrik eta beste bi urtez gehienez ere, eta luzapen horretarako alderdiek aho batez adostu beharko dute.

Seigarrena.- Hitzarmena azkentzeko eta suntsiarazteko arrazoiak (SPAJLren 51. artikulua).

Hitzarmen hau indarraldia amaitzen denean iraungiko da, edo suntsiarazteko arrazoiren bat gertatzen denean.

Hauek dira hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Hitzarmenaren indarraldia amaitzea hura luzatzeko erabakirik hartu gabe.
- b) Sinatzaile guztiak edo haien ondorengoak karguan aho batez ados jartzea.
- c) Oro har, edozein alderdik hitzarmen honetatik eratorritako betebeharrak ez betetzeagatik, eta, bereziki, sistemaren administrazio elektronikoko moduluak ez erabiltzeagatik.

Kasu honetan, alderdietako edozeinek errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio ez-betetzea egin duen alderdiari, epe jakin batean bete ditzan bete gabekotzat jotzen diren betebeharrak edo konpromisoak.

Errekerimenduan adierazitako epea igarotakoan ez-betetzeak bere horretan jarraitzen badu, igorri zuen alderdiak besteari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoa, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da.

- d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judiziala.

SPAJLren 52. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, bi alderdiek ezartzen dute hitzarmena suntsiarazteak ez duela inola ere ekarriko hitzarmena sinatu duten bi alderdietako edozeini kalte-ordaina emateko betebeharrak.

Zazpigarrena. Izaera eta jurisdikzio-ordena eskuduna.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du. Hitzarmena interpretatu eta garatzean sor daitezkeen auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren ardurapekoak eta eskumenekoak izango dira.

Eta ados daudela adierazteko, dokumentu hau sinatu dute, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.”

Eranskina: Sistema ezartzeko eta mantentzeko 2026. urtera arteko zenbatetsitako kostuak.

Kontzeptu	Jardu	2022	2023	2024	2025	2026	GUZTIRA
Administrazio elektronikoko moduluak	Ezarpena, konfigurazioa eta migrazioa	722.000,00					722.000,00
	Mantentzea eta hedapen-aholkularitza		350.000,00	350.000,00			700.000,00
	Mantentze arrunta				280.000,00	280.000,00	560.000,00
Barne-kudeaketako moduluak	Ezarpena, konfigurazioa eta migrazioa		400.000,00				400.000,00
	Mantentzea eta hedapen-aholkularitza			300.000,00			300.000,00
	Mantentze arrunta				250.000,00	250.000,00	500.000,00
	Telelana	50.000,00					50.000,00
	Front office CAU		60.000,00	60.000,00	60.000,00	60.000,00	240.000,00



Gastu orokorrak	Herritarren CAU		70.000,00	70.000,00	70.000,00	70.000,00	280.000,00
	Espediente historikoen gordailua	130.000,00					130.000,00
	Erabilgarritasuna hobetzea		50.000,00	150.000,00	150.000,00	50.000,00	400.000,00
	CCASA baliabide zuzenak	150.000,00	150.000,00	150.000,00	150.000,00	150.000,00	750.000,00
UDAL INFORMATIKA GUZTIRA		1.052.000,00	1.080.000,00	1.080.000,00	960.000,00	860.000,00	5.032.000,00

Alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Onartzea A.F.A.rekin hitzarmena sinatzea erakunde horrek emandako kudeaketa aplikazioen sistema informatikoen erabilpenerako, beti ere, Aramaioko Udalak egun duen tresna hobetzen bada eta aurrera pausua ondorioztatzen bada.

Bigarrena.- Alkatea eskuordetzea hitzarmena sinatzeko eta horri dagozkion eginbideak aurrera eramateko.

Hirugarrena.- Honakoaren berri ematea Arabako Foru Aldundiaren Lurralde Oreka Sailari.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzari, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”

6. 2019KO LEP BALIOGABETZEA.

Aramaioko Udal Plenoak 2019 urteko Lan Eskaintza Publikoa onartu zuela, 2019ko azaroaren 21ean egindako udal ezohiko bilkuran. Bertan jasotzen zen, besteen artean, Euskara eta Hezkuntza Teknikariaren lanpostua. Ondorengoak dira adierazitakoaren ezaugarri nagusiak:

LAN-KONTRATUPEKO LANGILEAK:

Lanpostua: Euskara eta Hezkuntza Teknikaria.

Kopurua: 1.

Taldea: A2.

Azpieskala: Administraziozkoa.

Lanaldia: Erdia

Betetzeko modua: Txanda librea (aldi baterako lanpostuen kontsolidazioa).

Dagozkion iragarkiak publikatu ziren, webgunean, ALHAOn (2019/12/02) eta EHAAAn (2019/12/03).

Haatik, azkeneko arau aldaketen ondoren, batez ere, 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premia buruzkoak eragindakoa, aldi baterako enplegua egonkortzeko tasa gehigarri bat baimentzen da, administrazio publikoetan jasota dauden eta aurrekontu-zuzkidura duten lanpostu estrukturalak barne, lanpostuen zerrendetan, plantilletan edo giza baliabideak antolatzeko beste moduren batean egon edo ez, gutxienez 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetan aldi baterako eta etenik gabe beteta egon direnak.

Lehen xedapen iragankorrak ezartzen duena alde batera utzi gabe, 2017rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko ekainaren 27ko 3/2017 Legearen 19.Bat.6 artikuluan eta 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen 19.Bat.9 artikuluan aurreikusitako egonkortze-prozesuen eraginpeko plazak aurreko lerrokadan deskribatutako egonkortze-prozesuaren barruan sartuko dira, baldin eta indarrean sartu ez diren enpleguari buruzko eskaintzak indarrean egon badira eta egun horretan sartu badira.

Horrez gain, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko izaera horretako zerrenda duten langileek aldi baterako betetzen dituzten egiturazko lanpostu hutsak ere sartuko dira.

Aurrekoaren ondorioz, Enplegu Publikoaren Eskaintzan sartu beharko dira:

- Egiturazko lanpostuak badira, funtzionarioenak zein lan-kontratuko langileenak, kidego, eskala edo kategoria desberdinetakoak, inolako mugarik gabe.
- Aurrekontu-zuzkidura izatea, eta hori agerikoa da, lehenik dauden eta benetan betetzen diren lanpostuak izan behar baitute, nahiz eta bitarteko edo aldi baterako izan.
- Aldi baterako okupatuta egon direnak:



- 2020ko abenduaren 31 baino lehenagoko hiru urteetatik gutxienez (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 2.1 artikulua).
- 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. xedapen gehigarria).
- Administrazioarekin aldi baterako lotura duen langile bat, nahiz eta beste lanpostu batzuetan izan, 2016ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa (abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 8. Xedapen gehigarria).

Halaber, aipatutako 20/2021 Legearen 2 artikuluan agintzen du, behin-behinekotasuna murriztu eta aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuekin lotutako Lan Eskaintza Publikoak, 2022ko ekainaren 1erako onartuak eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratuta egon beharko direla; ondoren, egoki diren deialdiak 2022ko abenduaren 31rako egin beharko direla; eta, azkenik, 2024ko abenduaren 31rako bukatu beharko direla prozedura guztiak.

Alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Baliogabetzea 2019 urteko lan eskaintza publikoa, lanpostu honi dagokionean: Euskara eta Hezkuntza teknikaria.

Bigarrena.- Dagokion iragarkia argitaratzea ALHAOn.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”

7. KIROLDEGIA BERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRAREN EXEKUZIOA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEARI HASIERA EMATEA.

Kiroldegiaren erabilera hobetzeko ezinbesteko da egokitzapen eta eraberritze lanak egitea, herritarren hainbat eskaerari erantzuna emateko eta, aldi berean, azpiegitura horren erabilpena bultzatzeko.

Pedro Apaolaza Martínez de Musitu arkitektoari esleitu zitzaion Aramaioko “Maidar Unda” kiroldegia eraberritu eta handitzeko obraren exekuzio proiektuaren idazketa. Esandako exekuzio proiektuan zehazten dira eginbeharrekoak eta, laburbilduz, honako lan hauek dira aipagarriak:

- Estalkia berritzea, iragazgaiztasuna bermatzeko.
- Fatxadako polikarbonatozko panelak eta horiei eusteko profilak berritzea, airearen sarreran estankotasuna bermatzeko.
- Barruko frontoiaren pintura berritzea, narriadura handia baitu.
- Kiroldegiaren kanpoaldeko teilatua, euri-garaietan erabil daitekeen azalera handituz (inguruan ohikoak).
- Kiroldegiko hormigoizko hormak kanpoaldean dituen kalteak konpontzea (zartadurak ageri dira, hormaren barruko armaduren korrosioa hasia baitago zenbait puntutan).
- Lanen exekuzioak, gehienez, lau (4) hilabeteko iraupena izango duela estimatzen da.

Alkateak gogorarazten du, proiektu hau Arabako Foru Aldundiaren dirulaguntza izango duela, izan ere, 2020-2021 Foru Planaren deialdiaren barruan kontuan hartuta baitago.

Hartara, aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

“Lehena.- Hasiera ematea Aramaioko kiroldegia eraberritzeko eta handitzeko obraren exekuzioa kontratatzeke espedienteari.

Bigarrena.- Udal zerbitzuei agintzea dagokion jardunbidea aurrera eramateko egin beharrei hasiera eman diezaietela.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udaltzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”



8. KIROLDEGIA BERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRAREN EXEKUZIOA KONTRATATZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEA.

Kiroldegiaren erabilera hobetzeko ezinbesteko da egokitzapen eta eraberritze lanak egitea, herritarren hainbat eskaerari erantzuna emateko eta, aldi berean, azpiegitura horren erabilpena bultzatzeko.

Pedro Apaolaza Martínez de Musitu arkitektoari esleitu zizaion Aramaioko "Maidar Unda" kiroldegia eraberritu eta handitzeko obraren exekuzio proiektuaren idazketa.

Proposatzen den lehiaketan, azpimarragarriak dira ondorengo ezaugarriak:

A. BOTERE ESLEITZAILEA			
Administrazio kontratatzailea	ARAMAIOKO UDALA		
Kontratazio organoa	UDALBATZA		
Esped. hasteko ebazpen data	2022/05/26		
B. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA			
Esped. zk.	2022KIRE0002	Kontratu mota	ZERBITZUAK
Prozedura mota	IREKI SINPLIFIKATUA	Izapidetzea	OHIKOA
		Erregulazio harmonizatuko kontratua	<input type="checkbox"/> BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ
Eskaintzak aurkezte modua	<input type="checkbox"/> Eskura <input checked="" type="checkbox"/> Elektronikoa <input type="checkbox"/> Eskura eta Elektronikoa		
C. KONTRATUAREN XEDEA			
Kontratuaren xedea			
Aramaioko kiroldegia eraberritu eta handitzeko lanak, Pedro Apaolaza Martínez de Musitu arkitektoak idatzitako exekuzio proiektuarekin bat			
CPV:	45212220-4		
Sortetan lizitzatzeko aukera	<input type="checkbox"/> BAI <input checked="" type="checkbox"/> EZ	Sorta bakarra	<input checked="" type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ
D. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA			
Oinarrizko aurrekontua € (BEZ kanpo)	BEZ aplikagarria (%):	Oinarrizko aurrekontua € (BEZ barne):	
388.581,53	21	470.183,65	
Aurrekontu-partida:	06.342.683020		
E. BALIO ZENBATETSIA			
E.1	Oinarrizko aurrekontua € (BEZ kanpo)	388.581,53	
E.2	Oinarrizko aurrekontua guztira € (BEZ kanpo)	388.581,53	
E.3	Luzapenak € (BEZik gabe)	... -	
E.4	Luzapenak guztira € (BEZik gabe)	... -	
BALIO ZENBATETSIA. GUZTIRA (E.2 + E.4):		388.581,53.-€	

Hartara, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

Lehena.- KIROLDEGIA ERABERRITZEKO ETA HANDITZEKO OBRAREN EXEKUZIOAREN KONTRATUA lehiaketa bidez emateko espedientea onestea, eta, hartara, administrazio-klausula berezien eta preskripzio teknikoen agiriak onestea, kontratazioa arautuko baitute.

Bigarrena.- Kontratuaren xedea eta inguruabarrak kontuan hartuz, espedientearen ohiko izapidetzea erabiltzea.

Hirugarrena.- Dagokion gastua onartzea.

Laugarrena.- Lizitazio-prozedura irekitzea; hain zuzen ere, prozedura ireki sinplifikatuaren bidez, esleitzeko irizpide bakarra emanda, eskainitako prezioa, automatikoki zenbatesteko irizpidea dena.

Bosgarrena.- Lizitazio-iragarkia udalaren kontratatzailearen perfilean argitaratzea, parte-hartzeko eskabideak aurkezteko epea irekitze aldera.

Seigarrena.- Alkatea eskuordetzea ondokoak egin ahal izateko: eskaintza onuragarriena egiten duen lizitatuari errekerimendua egiteko, tramite hutseko eginbideak aurrera eramateko, espediente honetako akats materialak zuzentzeko eta pleguetan ematen zaizkion gainontzeko ahalmenak



egikaritzeko.”

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.”

9. AURREKO EKITALDIETAKO FAKTUREN ERAGOZPENAK.

Alkateak adierazten du, txostena egin duela idazkari-kontuhartzaileak, egiten diren hainbat fakturen ordainketei buruz. Hain zuzen ere, ordaindu aurretik bere eragozpena (“reparo” delakoa) adierazi duen arren, zenbait lan edo zerbitzuri dagozkion fakturak ordainduak izan diren kasuei buruz ari da. Txostenak horrela dio:

“Lehenengoa.- Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren 215. artikulua arabera (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori), Toki Sektore Publikoko Erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren 12. artikuluaekin bat etorritik, organo kontuhartzaileak, kontu-hartzailetzaren eginkizuna betetzean, bere edukiarekin ados ez dauden dokumentuak aurkeztu beharko ditu, edo, bestela, funtsarekin ados ez dauden dokumentuak idatzi beharko ditu.

Desadostasunak baldin badaude organo kontu-hartzaileak egindako eragozpenaren eta eragozpen horrek eragiten dion organoaren artean, eta Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren 217.1 artikuluan (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren (tokiko sektore publikoko erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena) 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, tokiko sektore publikoaren esku egongo da desadostasuna ebaztea.

Bigarrena.- Aplikatu beharreko legeria honako hau da:

- Martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren 218. artikulua.
- Tokiko Sektore Publikoko Erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren 15. artikulua.
- Ebazpena, 2020ko urtarrilaren 15ekoa, Kontuen Auzitegiko lehendakariarena, toki-erakundeen barne-kontrolari buruzko informazioa bidaltzeari buruzko Instrukzioa onartzen duen Osoko Bilkuraren 2019ko abenduaren 19ko Erabakia argitaratzen duena.

Hirugarrena.- Eginkizun hori betetzean, kontu-hartzailetzako organo horrek honako hauei buruzko txostena igorriko dio osoko bilkurari:

- Toki-erakundeko lehendakariak egindako eragozpenen aurka emandako ebazpen guztiak.
- Diru-sarreraren arloan antzemandako anomalia nagusien laburpena.
- Presidenteak hartutako ebazpen guztiak, kontu-hartzailetzaren eginkizuna alde batera utzita.

Osoko Bilkurari horren berri eman ondoren eta kontu orokorra bidaltzean, Kontu Auzitegiari igorri beharko zaizkio bai presidenteak hartutako ebazpenak, bai osoko bilkuraren erabakiak, eragozpenen eta/edo kontuhartzailetzaren eginkizun ezaren aurkakoak, bai diru-sarreretan izandako irregulartasun nagusiak.

Laugarrena. Toki Ogasunak Arazten dituen Legearen testu bateginaren 215. artikulua arabera (martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori) eta Toki Sektore Publikoko Erakundeen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duen apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretuaren 15.6 artikuluaekin bat etorritik, kontuhartzailetzaren erreparoa izan arren, toki-erakundeko presidenteak agindutako ordainketak dira:

2019 (2019.05.16 -2019.12.31)								
Aitor Larrañaga Arteche			Ibai Ormaetxea Lasaga			Ostadar S.C.		
Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa	Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa	Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa
F/2019/250	08/2019	1.252,72	F/2019/273	04.19	544,50	F/2019/246	19.05	3.542,86
F/2019/323	09/2019	1.252,72	F/2019/338	05.19	544,50	F/2019/300	19.06	3.542,86
F/2019/427	11/2019	1.252,72	F/2019/399	06.19	544,50	F/2019/360	19.04.7	525,16
F/2019/437	13/19	1.252,72	F/2019/495	07.19	544,50	F/2019/393	19.08	3.542,86
F/2019/639	17/19	1.252,72	F/2019/558	08.19	544,50	F/2019/398	19.09	919,60
F/2019/699	21-2019	1.252,72	F/2019/576	09.19	544,50	F/2019/434	19-10 4	3.542,86



Esp. kodea.: 2022APAK0004

Gaia: 2022/05/26 UDAL PLENOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA

F/2019/802	22-2019	1.252,72	F/2019/774	10.19	544,50	F/2019/435	19-12 5	636,64
			F/2019/775	11.19	544,50	F/2019/527	19-13 6	3.542,86
						F/2019/573	19-14 7	3.542,86
						F/2019/657	15.08	3.542,86
						F/2019/697	19-16 9	396,80
						F/2019/753	19-17 10	3.542,86

2020 (2020.01.01 -2020.12.31)								
Aitor Larrañaga Arteche			Ibai Ormaetxea Lasaga			Ostadar S.C.		
Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa	Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa	Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa
F/2020/252	25-2019	1.252,72	F/2020/1	12.19	544,50	F/2019/864	19-18 11	3.542,86
F/2020/416	03-2020	1.252,72	F/2020/288	01.20	544,50	F/2020/294	19-19 12	847,00
F/2020/377	02-2020	1.252,72	F/2020/372	02.20	544,50	F/2020/6	19-19 13	933,64
F/2020/464	05-2020	1.252,72	F/2020/431	03.20	544,50	F/2020/287	20-01 14	3.542,86
F/2020/681	10-2020	1.252,72	F/2020/660	04b.20	544,50	F/2020/379	20-02 15	3.478,68
F/2020/607	07-2020	1.252,72	F/2020/661	05b.20	544,50	F/2020/433	20-04 17	3.542,86
F/2020/778	13-2020	1.252,72	F/2020/766	07.20	544,50	F/2020/409	20-03 16	536,84
F/2020/756	11-2020	1.252,72	F/2020/687	06.20	544,50	F/2020/562	20-05 18	3.542,86
F/2020/1060	16-2020	1.252,72	F/2020/917	08.20	544,50	F/2020/608	20-06 19	3.542,86
F/2020/1164	18-2020	1.252,72	F/2020/990	09.20	544,50	F/2020/776	20-11 24	696,96
			F/2020/1139	10.20	544,50	F/2020/751	20-09 22	8.607,50
			F/2020/1209	11.20	544,50	F/2020/754	20-10 23	3.542,86
						F/2020/691	20-08 21	3.542,86
						F/2020/919	20-12 25	3.542,86
						F/2020/992	20-13 26	3.542,86
						F/2020/1148	20-15 28	781,91
						F/2020/1143	20-14 27	3.542,86
						F/2020/1216	20-26 29	3.542,86

Irrien Lagunak		
Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa
F/2020/355	20010276	70,00

2021 (2021.01.01 -2021.12.31)								
Aitor Larrañaga Arteche			Ibai Ormaetxea Lasaga			Ostadar S.C.		
Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa	Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa	Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa
F/2021/36	20-2020	1.252,72	F/2020/1306	12.20	544,50	F/2021/07	20-21 34	508,20
F/2021/37	22-2020	1.252,72	F/2021/60	01.21	544,50	F/2020/1292	20-17 30	159,89
F/2021/218	01-2021	1.252,72	F/2021/222	02.21	544,50	F/2020/1305	20-18 31	413,54
F/2021/345	03-2021	1.252,72	F/2021/282	03.21	544,50	F/2020/1309	20-19 32	3.542,86
F/2021/346	05-2021	1.252,72	F/2021/478	05.21	544,50	F/2021/61	21-01 35	3.542,86
F/2021/360	11-2021	1.252,72	F/2021/360	04.21	544,50	F/2021/219	21-02 36	3.542,86
F/2021/692	14-2021	1.252,72	F/2021/531	06.21	544,50	F/2021/417	21-06 40	781,91
F/2021/698	16-2021	626,36	F/2021/640	07.21	544,50	F/2021/419	21-07 41	129,08



F/2021/890	20-2021	1.252,72	F/2021/796	73	83,45	F/2021/420	21-08 42	115,01
			F/2021/697	08.21	544,50	F/2021/480	21-09 43	3.542,86
			F/2021/901	10.21	544,50	F/2021/286	21-03t 37	560,18
			F/2021/1031	11.21	544,50	F/2021/287	21-04 38	3.542,86
						F/2021/558	21-11 45	1.038,66
						F/2021/559	21-12 46	866,36
						F/2021/636	21-13 47	10.318,00
						F/2021/644	21-14 48	3.542,86
						F/2021/700	21-15 49	3.542,86
						F/2021/907	21-18 52	3.542,86
						F/2021/1009	21-19 53	190,24
						F/2021/1033	21-20 54	3.542,86

Irrien Lagunak			KL Koop Elkartea			Komunikazio Biziagoa S.L.		
Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa	Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa	Sarrera zk	Faktura zk	Zenbatekoa
F/2021/227	21010277	70,00	F/2021/283	21/48	18,25	F/2021/369	S1859	156,00

ENPRESA / HORNITZAILEA	KONTZEPTUA
• Ostadar S.C.	Udal kultur etxearen kudeaketa
• Ibai Ormaetxea Lasaga	Ur-sarearen kudeaketa
• Aitor Larrañaga Arteche	ABBko dinamizatzaileren zerbitzua (landa garapenaren dinamizazioa)
• KL Koop Elkartea	Eguneko zentroaren kudeaketa
• Komunikazio Biziagoa S.L.	Argitalpenak
• Irrien Lagunak	Argitalpenak

Bosgarrena.- Laburbilduz, eragozpenen edukia edota arrazoiak ondorengoak da:

1.- KL Koop Elkarteak udalari bidalitako 21/48 zk. duen faktura. Horren ordainketa ez dagokio udalari. Enpresa horrek irabazitako lizitazio publikoaren ohiko funtzionamenduarekin lotutako faktura da. Kontratazioaren esleipenerako espedientearen jasotzen denarekin bat, "kontratistaren gain eta galorde joango da kontratuaren egikaritzea" (baldintza administratibo partikularren agiria, 20 atala). Halaber, "erabiliko diren azpiegiturak eta ekipamendua zentroan bertan daudenak izango dira eta udalaren jabetzakoak dira. Kontratuak dirauen bitartean, erakunde publikoak ordainduko ditu ur, berokuntza, elektrizitate eta telefonia finkoko gastuak, baita lokalen mantentzea eta konponketak ere, beti ere, kalteak enpresa esleipendunaren erabilera zabarrari egozgarriak ez badira" (baldintza teknikoaren agiria, VI atala). Aurkeztu den faktura, termometro bati eta bulego materialari dagokio.

2.- Ibai Ormaetxea Lasagaren fakturak. Faktura horiek jasotzen dituzten zerbitzuak ez dira kontratatu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuaren jasotako prozeduren arabera. Aurkeztu den fakturen arrazoiak errepikakorra da (hilerokoa), hain zuzen ere, ur-sareko kudeaketa edota mantenu lanak.

Aipatutako 9/2017 legeak 1 artikuluan ezartzen duenarekin bat, "Lege honen xedea sektore publikoan egiten diren kontratuak arautzea da, eta horren bidez bermatu nahi da, batetik, kontratazioa printzipio hauen arabera gauzatuko dela: lizitazioetan parte hartzeko askatasunaren printzipioa, prozeduren gardentasunaren eta publikotasunaren printzipioa eta lehiakideen arteko diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioa; bestetik, aurrekontuaren egonkortasunaren eta gastuaren kontrolaren helburuari eta osotasunaren printzipioari lotuta, ziurtatu nahi da obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatzeke diru-funtsak efizientziaz erabiliko direla, dauden premiak aldeztu aurretik definituz, lehia askea babestuz eta ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza hautatuz."



3.- Aitor Larrañaga Artecheren fakturak. Faktura horiek jasotzen dituzten zerbitzuak ez dira kontratatu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak jasotako prozeduren arabera. Aurkeztu den fakturen arrazoia errepikakorra da (hilerokoa), hain zuzen ere, landa garapen dinamizazio zerbitzuari dagozkio. Zerbitzu hau kontratatu zen, 2018an egindako kontratu txiki baten bidez eta 2018/12/31n bukatu zen kontratuaren indarraldia.

Aipatutako 9/2017 legeak, besteen artean, 29.8 eta 118 artikuluetan ezartzen duenarekin bat, kontratu txikien ezaugarri nagusienak dira:

Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dute, obra-kontratuen kasuan; edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira.

Kontratu txikiak zuzenean adjudikatu ahalko dira; jarduteko gaitasuna eta prestazioa gauzatzeko beharrezko den lanbide-gaikuntza dituen edozein enpresabururi adjudikatu ahalko zaizkio, 118. artikuluan ezarritako baldintzak betez betiere.

Kontratu txikiek ezin dute iraun urtebete baino gehiago, eta luzatu ere ezin dira egin.

4.- Ostadar S.C.ren fakturak. Faktura horiek jasotzen dituzten zerbitzuak ez dira kontratatu 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak jasotako prozeduren arabera. Aurkeztu den fakturen arrazoia errepikakorra da (hilerokoa), hain zuzen ere, Aramaioko kultur etxearen kudeaketa zerbitzuari dagozkio.

Kontratuaren esleipena 2010eko martxoaren 17an egin zen eta Administrazio baldintzen agiriarekin bat, horren iraupena 2014/03/31 artekoa izan zitekeen gehienez (luzapenak barne). Haatik, gaur egun esleipendunek zerbitzua ematen jarraitzen dute eta horri dagokion fakturak aurkezten dituzte.

9/2017 Legeak 29 artikuluan arautzen du Kontratuen iraupen-epea eta haien prestazioa emateko epea. Besteen artean, jasotzen du, sektore publikoko kontratuen iraunaldia zehazterakoan, kontuan hartu behar direla prestazioak zer-nolakoak diren eta finantzaketa nolako izango den, eta aldi-aldi prestazio horiek lehia bidez eman beharra ere bai, alde batera utzi gabe kontratu jakin batzuei aplikatu beharreko arau bereziak.

Halaber, zehazten du, ondoz ondoko prestazioko hornidura- eta zerbitzu-kontratuek bost urte iraungo dutela gehienez, denbora horren barnean direla artikulua honen bigarren apartatua aplikatuz eta ente kontratatzaileari aplikatu beharreko aurrekontu-arauetan ezarritako baldintza eta mugak errespetatuz kontratazio-organoak erabakitzen dituen luzapenak.

Bestalde, gogorarazi beharra dago, Udaltzarak erabaki zuela 2019ko irailaren 26an egindako bilkuran, Aramaioko kultur etxearen kudeaketarako zerbitzu kontratua esleitzeko espedienteari hasiera ematea.

Halaber, 9/2017 legeak 209 artikuluan arautzen du kontratuen azkentzea. Bertan dio, kontratuak bete direlako edo suntsiarazi direlako azkenduko direla. Ondoren, 210 artikuluan gehitzen du, kontratua betetzat joko dela kontratistak prestazioa osorik eta kontratuko baldintzen arabera eta Administrazioaren nahierara gauzatu duenean.

5.- Irrien Lagunak eta Komunikazio Biziagoa S.L.ren argitalpenak. Aldizkariaren harpidetzak dira, hain zuzen ere, herri eskolaren eta osasun zentroan jasotzen diren bi aldizkariaren urteko harpidetzak dira.

Ondorengo arauak aztertu ondoren, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena; 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzkoa; 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa; eta, 8/1997 Legea, ekainaren 26koa, Euskadiko Antolamendu Sanitarioarena, gastu horiek egitea ez dagozkie Aramaioko Udalari (halaber, horri buruz Ekain abokatuek egindako txostena atxikitzen da). “

Jarraian, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udaltzari egiten dion proposamena:

“**Lehena.-** Egindako lan, zerbitzu eta horniduren ordainketak onartzea eta berrestea, batetik, udalaren aurrekontuan ohiko gastu arrunten artean daudelako; eta, bestetik, udalaren irizpideekin bat datozen funtsezko lan, zerbitzu eta hornidurak kontsideratzen direlako.

Bigarrena.- Aurrekoaren ondorioz, espediente artxibatzea.”

Horrenbestez, alkateak bozketa deitu eta Udaltzarak, bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoarekin, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU.



10. TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO AKORDIOAREN ALDEKO ATXIKIMENDUA.

Eusko Jaurlaritzak Udalsarea 2030 akordiora atxikitzeke gonbitea luzatu dio Aramaioko Udalari. Akordio hori da, 2026ra arte sarea gidatuko duen esparru-akordio berria, "Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko akordioa. Udalsarea 2030 udalerrri jasangarrien euskal sarearen berriztapena".

Udalsarea 2030en xedea da EAEko udalerrriak eta eskualdeak mugiaraztea Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) eta 2030 Agenda lortzeko, tokiko ekintza eraldatzailearen bidez.

Engungo testuinguru geopolitikoak, krisi klimatikoak eta pandemikoaren ostekoak, inoiz baino gehiago eskatzen du administrazio-eskala guztiek konpromiso irmoa hartzea garapen jasangarriarekin, herri eta hiri inklusiboagoak, erresilienteagoak eta osasungarriagoak eraikitzeke, eta pertsonen bizi-kalitate handiagoarekin.

Udalsarea 2030en akordio berri honi atxikitzeak inplikazio politikoa eta jasangarritasunarekiko konpromisoa biziberritzen ditu, garapen jasangarri globalari tokiko ekarpena ikusaraztea ahalbidetuz eta Euskadi erreferente bihurtuz arlo honetan.

Hitzarmenaren testua eta dagozkio eranskinak banatu ziren, ohiko legez, udalbatzaren deialdiarekin batera (akta honi atxikitzen zaizkio dokumentuok).

Besterik gabe, alkateak aurkezten du Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordeak Udalbatzari egiten dion proposamena:

"Lehena.- Onartzea sinatzea "Tokiko ekintza jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko akordioa. Udalsarea 2030 udalerrri jasangarrien euskal sarearen berriztapena" izendatutakoa.

Bigarrena.- Alkatea eskuordetzea hitzarmena sinatzeko eta horri dagozkion eginbideak aurrera eramateko."

Besterik gabe, alkateak bozketa deitu eta Udalbatzak, bertaratutako zinegotzien aldeko botoarekin, aho batez, Ogasun, Antolaketa eta Funtzionamendu Batzordearen proposamena, ONETSI ETA AKORDIO MAILARA JASO DU."

11. GALDERAK ETA ESKAERAK.

Hitza hartu du Santiago Balantzategi Beitiak, zinegotzia eta mendi eta ingurumen batzordeburua. Adierazten du gai baten inguruko egoeraren berri eman nahi diola udalbatzari. Hain zuzen ere, luizi bat gertatu zen, Ipurtotz baserriko lurri eta bertan kokatutako baso-pista bati eragiten diena. Gertatutakoaren larritasun eta arriskua ikusita, txosten teknikoa eskatu zitzaion geologia enpresa bati. Txosten horren ondorioa larria izan zen: Lerradura translazionala dela eta tamaina handiagoko sistema baten parte dela, mendi-mazelaren dinamika-prozesuetan sartuta dagoena, 1,5 eta 2 m/urte arteko mugimendu-abiadurarekin, eta irristatutako masak hezetasun maila handia duela; beraz, hezetasun horrek fluido gisa joka dezakeela partzialki, abiadura handiagoko gertaera bat sortuz.

Ondoren, 2022ko urtarrilean, abendutik urtarilaren hasierara bitartean izandako prezipitazio handiekin batera, beste lerradura bat sortu zen Ipurtotz baserriatik gertu dagoen bidean. Aurreko egoera larriagotuz. Horren aurrean, bigarren txosten tekniko bat eskatu zen eta, horretan, honako hau ondorioztatu da:

- Mobilizatutako materialak fluxu motako lerradura eragin du, eta Arriola erreka igarotzen den ubidean zehar mugitu da.

- Igarotzean, lerradurak enbor ugari erorarazi ditu. Enbor horiek, zoru oso saturatuekin batera, aipatutako errekan zehar ibili dira, eta, igarotzean, aldaketa bat eragin dute ibarraren geometrian, arrasteak eragindako higaduraren ondorioz (Arriola erreka-stoaren ibarbidean zehar zirkulatzeak aldaketa handiak eragin ditu ibilguaren geometrian; izan ere, higaduraren aurretik, 4 metro baino gutxiagoko jariora zuen ubideak.

- Material horiek (enborrak eta lohiak) Arriola eta Etxaguen lotzen dituen errepidearen azpiko pasagune batetik 170 metrora bilbadura bat osatu dute. Pasabide horrek presa moduko bat sortu du errekan, eta material asko pilatzen da bertan.

- Presatik gora, fluxuak utzitako materiala duten eremuak daude, errekek garraiatuko dituenak. Presa horrek, beraz, galarazi egiten du ura errekan zehar ibiltzeak sortzen duen berezko autolimpieza (Arriola



Esp. kodea.: 2022APAK0004

Gaia: 2022/05/26 UDAL PLENOAREN OHIKO BILKURAREN AKTA

errekatik igarotzen den ur-fluxua ez da erabat eten, baina zaila da landare-materiala metatzea, batez ere enborrak eta lohiak).

- Etorkizuneko prezipitazio-gertakariak presa haustea eragin dezakete, aipatutako errepedearen azpiko pasagunetik oso gertu baitago.

Bigarren txostenean ondorioztatzen da, aurreko guztia errepedearen azpiko pasagunetik hurbil dagoenez, egokiena dela aipatutako eremuan pilatutako enborrak eta lohia ubidetik kentzea, euri-garaian presa kontrolik gabe hausteko probabilitate handia dagoelako, eta horrek kalteak eragin diezazkiekeelako errepedearen erabiltzaileei zein azpiegiturari berari.

Santiago Balantzategi Beitiak gaineratzen du, guztiaren berri eman zaiola Ur Agentziari eta Arabako Foru Aldundiari (txostenen berri barne) baina, hala ere, ez dutela inongo erantzunik jaso, nahiz eta beraien kompetentzien barneko gaia izan.

Pedro Elosegui González de Gamarra zinegotziak esaten du, galdetuko duela Foru Aldundian ea gai honen egoeraren inguruan berriren bat lortzen duen.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du osoko bilkura hau, goiburuan adierazitako egunean eta orduan, eta nik Aramaioko bitarteko idazkari-kontuhartzaileak, hala ziurtatzen dut, alkatearen oniritziarekin.